



# ALEA

arabako aldizkaria

MAIDER MARAÑA

**"DESEROSO SENTIARAZI  
BEHAR GAITUZTE  
MEMORIAGUNEEK"**



**Zure etxean aurreztu  
eta zure hiriko ingurumena  
hobetu nahi duzu?**



**PARTE HARTU eta eman  
izena martxoaren  
6a baino lehen**



+info+: [vitoria-gasteiz.org /etxeberdeak](http://vitoria-gasteiz.org/etxeberdeak)



# ALEA 225

2020-02-07 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

ESTITXU UGARTE LZ. DE  
ARKAUTE

## Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Parke eolikoak jartzeko asmoak Araban.
- 8 **Elkarrizketa.** Maider Maraña.
- 12 **Iritzia.** Itziar Rekalde, 'Propaganda'.
- 13 **Gutuna.** 'Gizarte ongizaterako foru erakundeari', Eduardo Arriolabengoa.
- 14 **Sarea.** #Etnizismoa.
- 15 **Irdia.** Lan istripuan hil da Audioko bizilagun bat.
- 16 **Kultura.** Iruña-Veleiako epaiketa hasi da.
- 17 **Gizarte.** Arabako otso bakarra hiltzeko baimena eman du Diputazioak.
- 18 **Ekonomia.** Arabako Errioxako argazki sozioekonomikoa.
- 20 **Datuak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Inauterien sua piztuko du Kuartangok.
- 25 **Kultura.** Bertako Jaialdia, hilaren 14tik aurrera, Baratza aretoan.
- 26 **Sexologia.** 'Egun on, alu'.
- 27 **Sukaldaritzak.** Eneko Rodriguez, 'Pizza di patate'.
- 28 **Denbora-pasak.**
- 30 **Agenda.**

### Bultzatzaileak



# berria goiena

### Laguntzaileak



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

### Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

### Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

### Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibxu Ugarte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

### Komertziala

Erlantz Anda

### Inprenta

GERTU Inprimategia

**Tirada:** 2.100 ale

### EGOITZA NAGUSIA

Antonio de Sucre 1, behea

01003 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

### PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

### HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

**Lege Gordailua:** VI-32-2015

**ISSN:** 2386-8961



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.  
Informazio gehiago: [www.alea.eus/harpidetzak](http://www.alea.eus/harpidetzak)

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako  
orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Itziar Rekalde, Emaize, Museo del Organo jatebrea.

# Haizearekin batera azaldu da polemika

Euskal Energiaren Erakundeak eta Iberdrolak parke eoliko berriak eraikitzeko asmoa agertu dute. Arabaren kasuan, Erroetan eta Labrazan jartzea aztertzen ari dira, eta herri horietako Administrazio Batzarrek haizea neurtzeko dorreak jartzea onartu dute. Erroetaren kasuan, parkearen aurkako plataforma bat sortu dute.

Testua: **Juanma Gallego**

**D**atozen urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan bost parke eoliko berri jarri nahi dituzte, eta, horretarako, zortzi kokapen aztertzen ari da EEE Euskal Energiaren Erakundeak eta Iberdrolak sortu duten Aixear konpainia. "Euskadin energia berriztagarrien presentzia areagotzeko lagungarri izango diren proiektu berrien garapena" bultzatu nahi dute, konpainia berriko arduradunen hitzetan. Joan den urtarrilaren 22an aurkeztu zuten Aixear modu ofizialean, Bilbon.

Jaurlaritzak emandako datuen arabera, gaur egun EAEn argindar kontsumoaren %7 parke eolikoek bitartez eskuratzen da, baina hamarkada batean kopuru hori hirukoiztu nahi dute: %21 izatea lortu nahi dute.

Horretarako, "haizeak Euskadin eskaintzen dituen aukera guztiak" aztertu nahi dituzte. Kokapenik egokienak zeintzuk diren erabakitzeko, ordea, hainbat ezaugarri kontuan hartu behar dira: besteak beste, toki horretan behar adina haize-ordu ote dauden ikustea eta haize errotak argindar sareari konektatu ahal izatea.

Arabari dagokionez, gaur egun bi parke eoliko daude lurraldean (Elgea-Urkilla eta Badaia), baina Aixear bi kokapen aztertzen ari da, bertan parke eoliko berriak jartzeko: Labrazan (Arabako Errioxa) eta Iturrietako Mendietan (Erroeta, Mendialdea). Momentuz, bietatik, Erroetakoa da aurreratuen dagoen proiektua, haize indarrari dagokionez kokapena egokia ote den argitzeko bertan neurketa dorre bat ezarri dutelako. Azpiegitura jarri eta hilabetera



ezezagunek dorre hori bota zuten, eta oraindik ez dute konpondu, baina dorrea berriro indarrean jartzeko asmoa agertu dute Aixearreko arduradunek.

Ez da lehen aldia bertan parke eoliko bat jarri nahi dutena. Izan ere, 2002an argitaratutako Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialean kokapen hori aintzat hartu zuten, baina 2009an Eusko Legebiltzarrak EAEko plan eolikoaren bertan behera uztea erabaki zuen.

Garai hartan proiektuaren aurkako mugimendua sortu zen, eta, orain, mugimendu hori berpiztu dute. Iturrietako Mendiak Aske plataformako Rebeca Gonzalez de Alaizak eta Aitor Armentiak azaldu dituzte errefusaren arrazoiak: "Denon ardura da mendiak babestea, eta horiek ezin dira utzi enpresa pribatuaren esku. Guretzat, mendietako tontorrek industrializatzea ez da alternatiba bat", dio Gonzalez de Alaizak.

Proiektuaren alde egiteko argudiatzen diren arrazoiak ez dira sinesgarri Armentientzat. "Inork ez du sinesten Iberdrola ekologismoaren alde dagoenik. Hau negozio bat da, eta ez dugu onartzen ekologismoaren izenean mendiak deuseztatzea". Horien kudeaketan herrietan egin den lana goraiatu du Erroetako bizilagunak. "Mendiak dira mendeetan zehar txukun mantentzen jakin izan dugun bakarra; herrietako jendeak oso ondo egin du".

Gaiaren inguruan dagoen informazio falta salatu dute plataformako kideek: "Bakarrik dakigu hedabideetan atera dena", kezu mintzo da Gonzalez de Alaiza. "Adibidez, plan berri bat egin

Gaur egun Araban bi parke eoliko daude: Badaian eta Elgea-Urkilla (irudian). Beste bi aztertzen ari dira. M. ARRAZOLA / IREKIA

**MENDIAK ENPRESA  
PRIBATUEN ESKU EZIN  
DAITEZKEELA UTZI  
DIOTE PROIEKTUAREN  
AURKA DAUDENEK**

**ADMINISTRAZIO  
BATZARREK BAIMENA  
EMAN DUTE HAIZEA  
NEURTZEKO DORREAK  
JAR DITZATEN**





Lehen mobilizazioak hasi dituzte Iturrietako Mendiak Aske plataformako kideek, eta gehiago izango direla iragarri dute. ITURRIETAKO MENDIAK ASKE

behar dute, eta 2020 da muga, baina ez dakigu horren inguruan zer dagoen. Dakigun bakarra da enpresa berria sortu dutela, eta Ramiro Gonzalez ahaldun nagusia telebistan atera zela esanez Iturrietako Mendietan parkea jarri nahi zutela".

Inpaktu bisualaz gain, beste hainbat argudio jarri dituzte mahai gainean, tartean zarata, mendietako akuiferoetan egon daitekeen eragina, edota hegaztietan sortzen duen inpaktua. Zentzu horretan, gogoratu dute Entziako mendilerroa Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu

bat dela. Argudiatu dutenez, interes bereziko eremua da hegazti nekrofagoentzat, —hala nola ugatzia (*Gypaetus barbatus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) edo sai arrea (*Gyps fulvus*)—, eta animalia horiek babesteko neurri garrantzitsuenetako bat da inguruan parke eolikorik ez egotea, elektrokuzioagatik edota talkengatik gertatutako heriotzak saihestu aldera.

Baina harago joan dira, eta beste energia-eredu bat eskatu dute. Zein, bada? "Momentuz, plataformari forma ematen ari gara", erantzun du Gonzalez de Alaizak. "Nire iritzia pertsonala nahi baduzu, energiaren kudeaketak ahalik eta lokalena izan behar du, dimentsionatua eta publikoa. Baina haiek berde kontzeptua zuritzeko besterik ez dute erabiltzen".

Proiektuaren aurka egiteko egingo dituzten ekintzak asanbladan adostu behar dituzte, eta horretarako ostiral honetan Arraia-Maetzuko udaletxean hitzordua finkatu dute.

### Azterketa sakona

Iturrietan dorre horiek jartzeko baimena iazko apirilean eman zuen Erroetako Administrazio Batzarrak. Momentuz haizea neurtzeko dorretarako baimena besterik ez dela izan argi utzi nahi izan du Administrazio Batzarreko presidente Lucas Mujikak. "Gero, konpainiari kokapena interesatzen bazaio, hitz egin ahal izango dugu".

Gaiaren inguruan herrian jaso duten informazio guztiak zabaldu dutela babestu du Mujikak. "Udalari buruzko paper guztiak etxez-etxe pasatzen ditugu, jendeak irakur ditzan. Baina orain leporatzen digute alde aurretik gai-ordena zabaldu ez izana". Mujikaren arabera, akordioa lau dorre jartzeko izan da, baina ez du uste bi baino gehiago jarriko dituztenik. Jarri zuten bakarra bota zutela gogoratu du. "Moztu zuenari dorrea ia gainera etorri zitzaion, metro batera edo, behar ez ziren kableak moztu zituelako", erantsi du. Azken erabakia Kontzejuak izango duela aurreratu du. "Erroetan, bi lagun izan ezik, gainerako herritarrak neurketa dorreak jartzearen alde egon gara. Gero, baldintza ekonomikoen arabera, herriak erabaki beharko du parkearekin aurrera egin ala ez". ■



## Labrazan ere neurketak hasiko dituzte

Labrazan ere antzeko proiektua aurkeztu du Aixendarrek. Bertan haize errota jartzea aztertzen ari dira, eta ingurunea egokia ote den ebazteko dorrea aurki jarriko dute. Hori egin ahal izateko Labrazako Administrazio Batzarraren baimena jaso zuten urtarilaren erdialdean. Erroetan bezala, Labrazako Administrazio Batzarreko presidente Juan Miguel Martinezek dio berez baimen horrek ez duela suposatzen parke eolikoa egiteko baimena eman izana. "Horri buruzko azken erabakia Kontzejuaren esku egongo da". Martinezek azaldu du dorrearen oinarrietako bat Administrazio Batzarraren lurretan egongo dela, eta, beste bat, partikular baten lurretan.

Lehen aurreikuspenen arabera, parkea aurrera eginez gero, 12 aerosorgailuz osatuta egongo litzateke, baina horien kokapen zehatza erabakitzeke dago. Orain arte hainbat lekutan jarrita daudenak baino dezente handiagoak izango dira: goiko gurutzeraino neurtuta, 180-200 metro inguruko altuera izango dute. Radio Rioja Alavesari egindako adierazpenetan, Martinezek



Nafarroan dagoen Las Llanaseko parke eolikoa Labrazatik ikusten da. PHOT.OK

onartu du "inpaktu bisuala itzela" izango dela. Horregatik, parkea eginez gero, herritik ahalik eta urrunen jartzea nahiko lukete –orain Nafarroako lurraldean baina Arabako mugan dagoen Las Llanasko parke eolikoa ikusten da Labrazatik–. "Beste kontu bat izango da hortik eskura daitekeen onura ekonomikoa, inpaktu hori konpentsatzeko". Momentuz horren inguruko informaziorik ez badute ere,

Aixendarreko arduradunekin izandako bileran urteko 200.000 euroko zifra mahai gainean jarri zuten, eta parkearen inguruan 5 edo 6 lanpostu sortzeko aukera ere aipatu zuten. Dena dela, oraindik 9-10 hilabete igaro beharko dira dorrea jartzen dutenetik, eta, kokapena egokia dela ondorioztatzen bada, Kontzejuak gaiari buruzko azken erabakia hartu beharko du.

# "Memoriagunean ez dugu aldebakarreko begirada bilatu behar"

**MAIDER MARAÑA SAAVEDRA** KULTURA PAISAIK ETA ONDAREA UNESCO KATEDRAKO IKERLARIA

Nazioarteko aholkularia da Maider Maraña eta Nazio Batuen Erakunderako munduko memoria guneak ikertzen lan handia egiten ari da; gizartearen eta erakunde publikoen arteko lankidetzeta eta biktimen parte-hartzea ezinbestekoak ikusten ditu giza eskubideetan oinarritutako memoriaguneak eraikitzeko. Testua eta argazkia: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**

**G**asteizko San Frantzisko elizan sortu nahi duten memoria gunearen diseinuan aurrera egiteko jardunaldietan parte hartu du Maite Maraña Saavedrak (Donostia, 1981). Kultura Paisaiak eta Ondarea Unescoko Katedran koordinatzailea eta ikertzailea da Maraña, eta giza eskubideetan aholkulari lanak egin ditu Nazio Batuen Erakundearen, besteak beste. Hartara, giza eskubideen urraketen ondorioz ondare bihurtu diren espazioak ikertu ditu munduan zehar, eta aztertu du espazio hauek kudeatzeko orduan nola uztartu biktimen, gizartearen eta erakunde publikoen ikuspegiak: "Biktimek, senideek eta erakundeek ikuspuntu desberdinak izan ditzakete, baina nolabaiteko gutxieneko diskurtsibo bat lortu behar dute".

## **Zer da memoriagune bat?**

Ez dago oso argi. Egia da normalean museotik gertu daudela eta horregatik esan ohi da bertatik ikerketa bideratu behar dela, baina eginkizun pedagogikoa ere badute. Munduan zehar denetarik dago; horregatik espazio horien

inguruan Nazio Batuen Erakunderako ikertu dugunean eztabaidak izan ditugu memoria espazioak identifikatzeko orduan. Kasu batzuetan gudu-zelaiak ere memoriagunetzat hartzen dituztelako, eta guri zaila suertatzen zitzaigun hori horrela ikustea, sarritan toki hauetan gerraren goraiamena egiten delako. Hortaz, ez da hain erraza memoriagune bat identifikatzea.

## **Zer oinarritzko ezaugarri izan behar ditu?**

Guretzat, beti, memoriagune batek giza eskubideen ikuspuntua izan behar du, hori da oinarritzkoena, hau da, bere diskurtsua ezin da zentratu garaituetan eta garaileetan, edo ezin da egon botere politikoak goraiatzeko eginda. Toki horretan egon zen giza eskubideen urraketaren aurrean memoria, justizia, erreparazioa eta egiaren baloreak defendatu behar ditu. Ikuspuntu pedagogikoa ere badute, eta sarritan biktimek lortzen dute toki hauetan beraien egiaren zabalpena egin ahal izatea. Tokiak berak ere badu bere garrantzia, alegia, ez da berdina egitea memoriaren gune bat eraikin berri batean edo urraketa horiek suertatu ziren tokian.

## **Zertarako balio behar du? Zer helburu ditu?**





Egia ikertzea eta ezagutaraztea, baina lehen aipatu ditugun baloreekin nahastuta eta horiek ezagutarazteko helburuarekin. Historia ezagutzeaz gainera, hura zergatik gertatu zen azaltzeko ikuspuntu kritiko bat ere garatu behar da, eta horrek lagunduko digu historia latz horiek ez errepikatzen. Erakunde publikoek eta gizarte zibilak badute eginkizun hori, hezkuntza proiektu hauek garatzea.

#### **Gizartearekin batera aldatuko da memoria?**

Memoriarena inoiz geldi geratzen ez den diskurtso bat da, gure ikuspuntua denborarekin aldatzen joaten delako. Espainiako Gerraren inguruan, adibidez, nik dudan begirada eta nire aitonak izango zuena zeharo desberdinak dira, eta hori onartu behar dugu. Ezin dugu pentsatu ez garela fidelak izaten ari edo gure arbasoen memoria urratzen ari garela; ikuspuntuak aldatzen joaten direlako. Argentinako ESMAN (Armadaren Mekanika Eskola), adibidez, gertatu izan zaie duela pare bat urte feminismoaren eztanda izugarria eman zela herrialdean, eta museoko langileen artean eztabaida sortu zen bertan dagoen erakusketa iraunkorrek ez zuelako

genero ikuspegia jasotzen. Beraz, orain ari dira berririo edukiak erreparatzen eta egokitzen. Martxoaren 3ko memoria publikoa egiten dugun momentuan ere aldaketak emango direla onartu behar dugu, belaunaldi berriek ere ekarpenak egin ahalko dituztela.

#### **Zer memoria gunea irudikatzen duzu San Frantziskon?**

Memoriagune bakoitzak bilatu behar du zein den bere tokia; izan ere memoria oso zabala da eta ezingo dugu memoria eta giza eskubideen inguruan gertatzen den guztia kontatu. Martxoak 3aren inguruko zentro batek landu beharko du langileen egoera, baina halaber Poliziaren gehiegikerien biktimen errealitatea hobeto ezagutarazteko balio dezake. Bere historiarekiko leiala izanez, zentro bakoitzak topatu behar du zer den benetan eskaini dezakeena memoriaren inguruan. Martxoaren 3an jazo zen eskubideen urraketa hori oso errotuta dago Gasteizko gizartean, kutsua utzi du herritarren artean, eta logikoa litzateke egun horretan jazo ziren giza eskubideen urraketez gainera, garai horietako testuingurua azaltzea, langileen egoeraren eta borrokaren ingurukoak.



Memoria Garak antolatuta dituen jardunaldietan jende ugarririk parte hartu du. M. BURUAGA.

### **Historia berdinaren inguruan irakurketa desberdinak jaso ditzake memoriagune batek?**

Biktimek, senideek eta erakundeek ikuspuntu desberdinak izan ditzakete, baina lortu behar dute nolabaiteko gutxieneko diskurtsiboa. Eta behin hori lortuta, beste mota bateko espazioak abiatu daitezke: biktimek izan ditzakete espazioak hitzaldiak egiteko, hori ere proposatu daiteke, edo behin-behineko erakusketak. Ez dugu begirada aldebakarrekoa bilatu behar.

### **Ulegarria da historia kontatzeko modu desberdinak islatzeko memoriagune desberdinak eraikitzea herri batean? Normala da?**

Teorikoki ez dago inongo arazorik.

Arazoa etor daiteke memoriagune desberdinak sortzen direnean alderdi politiko ezberdinek dituzten interesengatik edota gizarteko parte batek ez duenean gizartearen beste parte batek pentsatzen duena onartzen. Horrek beste motako arazoak sortuko lituzke; baina zergatik ez eduki hainbat zentro? Historia poliedrikoa da. Arazoa da zentroak bestearen kontra egiteko sortzen direnean.

### **Nola izan daiteke integratzailea memoriagune bat?**

Alde batetik dago norenak diren toki hauek. Gauza bat da legitimitatea eta beste gauza bat da nork kudeatzen duen, eta beti ez dute bat egiten. Erakunde publikoak sartzen direnean babesa lortzen da, eta hori interesgarria eta garrantzitsua da, betiere legegintzaldien gainetik egiten den lan bat baldin bada, alegia gobernu baten kontua denean eta ez alderdi politiko baten kontua. Arazoa da askotan zaila gertatzen dela errealitate instituzionalizatu horietan biktimen eta familien begirada txertatzea, eta ezinbestekoa da hori. Memoriagune batean bilatu behar dugu espazio bat non familiak eta biktimak libre sentitzen diren parte hartzeko. Ez da erraza, baina derrigorrezkoa da inguruko parte-hartzea ere sustatzea; zentro hauek auzoarekiko eta hiriarekiko harremana sustatu behar dute.

### **Zer memoriagune eredu nagusitzen da nazioartean?**

Denetarik dago. Indarren arteko oreka dagoenean diskurto integratzaileagoak egiten direla ikusi dugu, baina botere publikoek toki hauek bereganatzen dituztenean eta parte-hartzea ez

**"HISTORIA POLIEDRIKOA DA. ARAZOA DA ZENTROA BESTEAREN KONTRA EGITEKO SORTZEN DENEAN"**

**"KASU PARADIGMATIKOA DA AUSCHWITZ, DESASTRE BAT, BAINA EZ DA KASU BAKARRA"**

**"MEMORIAGUNE BATEAN EZ BADUZU ZIRRARA SENTITZEN, ZERBAIT GAIZKI DAGOELAKO DA"**

dagoenen, joera maltzurak sortzen dira diskurtsoan: desitxuratzeak ematen dira, botereak legitimatzeko diskurtsoak garatzen dira edo ikuspegi inozo bat proposatzen da. Hala zen, adibidez, Mandela egon zen Robben irlako espetxe-museoan; *apartheida* amaitu zenean, diskurtso garaile eta *rainbow* bat zabaldu zuten, kontuan hartu gabe giza eskubideen arazo larriak ematen zirela oraindik Hego Afrikan. Ruandan ere tutsien eta hutuen hilketaren inguruan historia bakar bat jasotzen da. Belgikan, adibidez, badago toki bat, oso bitxia, non Lehen Mundu Gerran irlandarrak –unionistak eta errepublikanoak– elkarrekin borrokatu ziren, eta oraintxe egin dute dorre bat, Bakearen Dorrea, nolabait adierazteko elkarrekin hil baldin baziren elkarrekin bizi ahal direla. Balkanetako Mostar zubiaren kasua ere oso ezaguna da, bi komunitateen arteko lotura bezala irudikatu dute, Unescok barne, eta inondik inora ez da zubi hori komunitateen arteko banaketaren eremua izan.

#### **Diskurtsoaren desitxuratzeko horiekin batera, Auschwitzen gertatzen ari den fenomeno turistiko morbosoa dago.**

Betidanik egon da "turismo beltza" edo gerra tokiak ikustera joaten den turista. Auschwitz modan jarri den produktu bat bezala da; egun oso merkea da bidaiatzea, eta badirudi bizitzan egin behar den *must* horietako bat Auschwitzera joatea dela. Fundazioa lan handia egiten ari da turismoa kudeatzeko, baina arazoa izan dute batez ere bidaia-antolatzaileekin. Kasu paradigmaticoa da Auschwitzena, desastre bat, hutsaldutik egin da, baina ez da kasu bakarra. Turismoak lagundu dezake ondarea babesten baina bi ahoko arma izan daiteke.

#### **Toki sinbolikoez ari garela, Espainiako Memoriaren Haranean zer pausu eman beharko lirateke memoriagune bilakatu nahi izanez gero?**

Adituen eta familien arteko parte-hartze sistema baten bidez, proposamen zabal batera iritsi behar gara. Memoria landu behar dugu, bestela eztanda egingo digu. Gainera, auzia horren sinbolikoa

izanik nazioarteko adituen parte-hartzea ere beharrezkoa litzateke, kanpoko begirada izateko, baina garrantzitsua da biktimen eta familien begirada txertatzea.

#### **Asko dira garaileak eta garaituak gogoratzen dituzten oroitarrak eta tokiak. Zer egin daiteke horiekin?**

Mendebaldeko gizarteak beti goraiatu ditu gerrak. Zer egiten dugu orain? Aurretik aipatu dugu: ez gaude XIX. mendean, ikuspuntuak aldatu egin dira, eta gure gaur egungo giza eskubideen begirada hori txertatu behar dugu toki horietan, eta gerra goraiapatetik beste begirada bat ematera pasatzea.

#### **Memoria gune bat eraikitzeke une egokia dago?**

Historia egiteko beharbada denbora behar da, baina memoria beste errealitate bat da. Memoriak badu gertatutakoaren analisiaren parte bat, baina memoria eraikuntza da, gizarteak zer gogoratu nahi duen, zer baloratu nahi duen, eta zer gorde nahi duen berriro ez gertatzeko. Memoriagune bat egiteko epe zehatzik ez dago, ez dago datarik. Lehenik eta behin, behar bat egon behar da, talde batek beharra izan behar du memoria hori eraiki, zabaldu eta errotzeko.

#### **Beraz, ez dira zauriak sendatu behar memoriagunea eraiki baino lehen?**

Ez. Ez du zertan. Are gehiago, kasu batzuetan memoriagune hauek nolabait ere zauriak zaintzen dituzte; ez dira horretarako sortzen, baina sarritan horretarako ere balio dute. Espazio hauetara sartzea oso osasungarria da biktimentzat, erreparazioa, justizia eta egiaren prozesuak bideratzen dituzten neurrian zauriak sendatzeko ere balio dezakete.

#### **Deserosoak izan behar dira memoriaguneak?**

Giza eskubideen zentro batean ez baduzu zirrara sentitzen zerbait gaizki dagoelako da, beste ideologia bat defendatzen egongo dira eta zu ez zara ideologia horren parte. Giza eskubideen inguruan sortzen ditugun zentroek deseroso sentiarazi behar gaituzte, edo gutxienez pentsarazi behar digute zer egiten dugun gure egunerokoan eta zer egin dezakegun. ■■■



# Propaganda



**ITZIAR REKALDE**

IPUIN KONTALARIA

**P**ropaganda hitza latineko *propagaretik* (zabaldu, hedatu, barreiatu) etorri arren, aspaldi beste asmo batez dator kutsatua: zeozer zabaldu, barreiatu bai, baina norbaitzuen probetxurako. Horregatik, propagandaren atzean boterea dago eta egon da beti. Adimenak jasaten duen eraso kalkulatu bat, konturatu gabe mezu edo jarrera baten menpean jarriko gaituen tresna. Horretarako, onartuak izateko, edozein neurriko boterea modu magiko batez lortzeko edo sinesmen mistikorako dugun beharra manipulatu dute, dena delakoek euren helbururako mesedetan geure iritzia moldatzeko kolektiboki.

Baina propagandaz murgilduta jaiotzen bagara, sare guztietatik, telefonoetatik, hedabideetatik propagandaz josten bagaituzte, nola nabarmenduko dugu zer den egia edo gezurra, zein da gure kasa sortu dugun iritzia eta zein da inpunitate osoz ezarri digutena? Adi egon behar dugu.

Propagandaren eraginkortasuna, besteak beste, errepikapenari lotuta dago. Zeintzuk dira egunero eta egunean behin eta berriro entzuten ditugun albiste ohikoenak? Nik, Kataluniari buruzkoak eta koronabirusarenak jotake. Batak zein besteak izugarritzko kalteak ekarriko omen dizkigute. Ditzosozko birusak, eragin txikienean gripe arin baten antza du, eta gogorrean pneumonia antzekoa omen da. Susmoa dut errazen kutsatzen gaituena, "propagarriena", jasaten ari garen pandemia gorriena, beldurra dela.

Nora begira, hala ikusi. Nora begira gauden erakutsiko du zer ikusiko dugun eta geure etika zer bilakatuko den. Halako zerbait esaten du Gonçalo Tavaresek *Moralitate ozena* deritzon artikulu batean. Entzuteak gorputzaren mugimendu sotila eragiten du, atentzioaren eta begiradaren norabidea finkatuko duena. Zeri egiten diogu kasu, zeri ematen diogu garrantzia? Ozenago, deigarriago, liluragarriago, mesedegarriago heltzen zaigunari edo frekuentzia txikiago batez heltzen zaigunari? Zer liburu edo musika aukeratzen dugu? Honetan guztian dago geure ardura.

Zein soinuri kasu egin, zelako gauzetan jarri geure arreta, noranzko jarri begirada. Hor dago gakoa. Zalantza barik, garrantzia handiko erabaki pertsonala. ■■■

**ZEIN DA GURE KASA  
SORTU DUGUN IRITZIA  
ETA ZEIN DA  
INPUNITATE OSOZ  
EZARRI DIGUTENA?**



## GUTUNAK

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari gutuna****EDUARDO ARRIOLABENGOA ABASOLO**  
GASTEIZ

2016ko urriaren 26an sartu zen nire amaginarreba zahar-egoitza pribatu batean osasun krisialdi larri bat jasan ondoren. Hilabete batzuk geroago harremanetan jarri ginen zuzentzen duzun erakundearekin. Egoitza publikoa nahi genuen gure amarentzako, baina ez da horrela izan. Duela egun batzuk hil da nire emaztearen ama hiru urte egoitza pribatuan egin eta gero.

Lehenengo eta behin, guk amarentzako Foru Aldundiari eskatu geniona ez zen dirulaguntza bat, baizik eta plaza bat egoitza publiko batean. Prest ginen amari zegokion prezio publikoa ordaintzeko, baina plaza publiko librerik ez zegoenez, eta, gizarte-langileak esan zigunez itxarote-zerrenda luzea zenez gero, zegoen egoitza pribatuan jarraitu behar izan du amak hil egin den arte.



PIXABAY

Izapide gogaikarri eta astun baten ondoren, sei hilabete behar izan ziren mendekotasuna aintzatesteko eskabidea tramitatu genuenetik diru-laguntzaren komunikazioa jaso arte. Aldiz, lau egun nahikoak izan dira ama hil zela telefonoz gizarte-langileari jakinarazi eta prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidearen

**TXEKE BATEN BIDEZ NAHI DITU FORU ALDUNDIAK BETE GURE NAGUSIEN BEHARRAK**

iraungitzea erabakitzeko. Epe luzea eta eragozpenak alta jasotzeko, berehalakotasuna eta erraztasunak, ordea, baja emateko.

Menpekotasun larriaren aitopenearen egun berean diru-laguntza indarrean jarri beharrean, lau hilabete beranduago hasi zen ama diru-laguntza jasotzen. Ordea, hil zen egun beretik eman diozue baja, ondo kudeatu behar da diru publikoa eta.

Txeke baten bidez nahi ditu Foru Aldundiak bete gure nagusien beharrak, egoitzen plaza publikoak sustatu ordez, menpekotasuna negozioa bihurtuz eta ekimen pribatuaren eskutan utziz. Gero eta gehiago ari dira zabaltzen Araban zehar zahar-egoitzak, plaza publikoek bere horretan jarraitzen duten bitartean. Argi dago, beraz, zein den Foru Aldundiaren politika: gure nagusien bizitzen azken urteak industria, negozioa bilakatu.

Non dago duela ez urte asko Aldundiak izan zuen ospea zituen zerbitzu sozialengatik? Aurrera jo beharrean ez al da Foru Aldundia atzera pausuk ematen ari?

Argi dago baietz.

**BIDALI ZURE GUTUNA:** [erredakzioa@alea.eus](mailto:erredakzioa@alea.eus)

Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, herria, telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.

**ALEAK eskubidea du gutuna laburtzeko eta [alea.eus](http://alea.eus)-en argitaratzeko.****M** Mendia  
Optika**150** urte  
zure ondoan[www.mendiaoptika.eus](http://www.mendiaoptika.eus)

## SAREAN

@ANAMENABAR

### #Etnizismoa

**E**karrekin Podemoseko lehendakariyai izateko aurkeztu da Rosa Martinez, eta zalaparta ekarri du berekin, agerraldietan euskaraz aritzeko gaitasunik ez duela esan eta gero. Horren inguruko eztabaida desbideratu du, ordea, El Correo egunkariak, Martinezi egin zaizkion kritikak euskara ezagutzaren ingurukoak beharrea haren jatorriari buruzkoak direlakoan. Horrek sare sozialetan eztabaida piztu, eta, besteak beste, "etnizista" modukoak deitu dizkiete hautagaiak elebidunak izan daitezen eskatu dutenei. ■



**MIKEL ELOSEGI  
ASPIAZU**

@Mikelelosegiazp

Eta 2020ko otsailera iritsiko gara ea lehendakariyai batek euskaraz jakin beharko lukeen eztabaidatzen. Ez adarrik jo, faborez...



**ANA MORALES**

@AnaisNi

Herritarren ordezkariak herritarren hizkuntza jakin beharri etnizismoa deitzen badio, berari beste hitz bat dagokio: supremazista.



**NATALIA  
RODRIGUEZ**

@koratxu

Eta azken egun hauetako euskararen inguruko eztabaidaren ondoren, noizko euskara ikasteko doakotasuna?



**JOSU GOIKO**

@josu\_goiko

Zenbat haserretzen diren elebakarrak euren pribilegioa kolokan jartzean. Ezagun egiten zaizue?



**IMANOL  
ELEZGARAI**

@ilezgarai

Eztabaidetatik harago bada garaia herri honetan gertaeren bilakaera zinez alda dezakeen gaiari eusteko: hedabide bakar batek nola ezarri dezakeen agenda halako erraztasunarekin, are gehiago ohi modura datu faltsuak badarabiltza.



**JOZULIN  
SEDICIÓS**

@jozulin

"Horda de etnicistas", Zelan eguna?

## IRUDITAN



## Laudioko langile bat hil da lan-istripuan

Urtea hasi denetik, Euskal Herrian hamabi lagun hil dira dagoeneko lan-istripuan. Pasa den astelehenean bertan, Laudioko 40 urteko gizon batek bizia galdu zuen Galdakaoko GHI Hornos Industriales enpresan izandako lan istripu baten ondorioz. Heriotza berri hori salatzen mobilizazioa egin zuten astearte iluntzean Laudioko Herriko plazan; ehunka lagunek egin zuten bat *Prekarietatea hiltzailea* lelopean izandako elkarretaratzearekin. Urtarrilaren 30eko greba orokorrean ere "lan baldintza duinak" eskatu eta prekarietatea salatzen ekintza egin zuten.

**Argazkia: Aiaraldea.eus** ■■■



**Bidali zure argazkiak testu labur batekin: [erredakzioa@alea.eus](mailto:erredakzioa@alea.eus)**



Iruña-Veleiako aztarnategian grafito faltsuak egitea eta ondarea hondatzea leporatzen diete akusatuei. AFA

# Grafitoei buruzko epaiketa hasi da

Astelehenean abiatu dute Gasteizen hiru lagunen aurkako epiketa, Iruña-Veleiako aztarnategian ostraken gaineko grafito faltsuak egitea leporatuta. Akusatuetakoa batek idazkun bat faltsutu izana onartu du.

## **ERREDAKZIOA** GASTEIZ

Ezusteko batekin hasi da Iruña-Veleia auziko epaiketa: Oscar Escribano geologoak pieza bat faltsutu zuela onartu eta akordioa egin du Fiskaltzarekin. Ondarearen kontrako delitua onartu du; urtebete espesxe zigorra ezarri diote, baina ez du kartzelara joan beharrik izango.

Bere lankideei "broma bat" egiteko asmoz egin zuela azaldu du Escribanok: 2006ko indusketetan "Veleia" idatzi zuen pieza batean,

eta urte hauetan behin baino gehiagotan onartu du iruzurra. Epaiketan hasi baino lehen eman du adostutako akordioaren berri.

Eliseo Gilekin eta Ruben Cerdanekin zer gertatzen den jakingo da epaiketan zehar. Izan ere, biek ala biek euren errugabetsuna defendatu dute epaitegien atarian, epaiketa hasi baino minutu batzuk lehenago. Iruña-Veleiako aurkikuntzen faltsutasuna ez dela frogatu uste du Eliseo Gil arkeologoak.

Guztira hamar saio izango ditu Iruña-Veleia auziko epaiketak, eta otsailaren 18ra arte luzatuko da.

Indusketan parte hartu zuten hainbat lagunek ere deklaratu dute epaiketan, lekuko gisa. Gilekin batera indusketaren zuzendari izandako Idoia Filloy arkeologoak argudiatu du zientzialarien artean ez dagoela adostasunik grafitoak faltsuak ote diren ebazteko orduan.

2006an aztarnategia utzi zuten Miguel Angel Berjon, Jose Angel Apellaniz eta Carlos Crespo arkeologoek ere deklaratu dute. 2009an hiru arkeologo horiek prentsaren aurrean azaldu ziren, aztarnategian agertutako grafitoen inguruan zituzten zalantzak azaltzeko. Besteak beste, aurkikuntza gehienak garbiketa gunean agertu zirela esan zuten. Hein handi batean, EHUKo adituen txostenetan eta hiru arkeologo hauen testigantzan oinarritu da Diputazioa akusazioa mamitzeko.





Arabako mendilerroetan dabilen otsoaren irudia zabaldu zuten duela aste batzuk. @LEKUEZAMA

# Otsoa ehizatzeke bidea, libre

Arabako otso bakarria ehizatzeke baimena eman du Diputazioak. Gibijo inguruko abeltzainei jakinarazi die itxaronaldiak egin ahalko dituztela 14 egunez, otsoa hiltzeko. Ekologistak Martxanek erabakia salatu du.

## ERREDAKZIOA

"Biodibertsitatearen aurkako eraso" ez baimentzeko eskatu zioten duela gutxi Ekologistak Martxan mugimenduak eta Euskadiko Otso Taldeak Arabako ahalduen nagusiari, 105.000 sinaduren babesarekin. Hala ere, Arabako otsoa ehizatzeke baimena ematea erabaki du Aldundiak.

Erabakia azken hilabeteetan abeltzainek egindako kexen ha-

rira hartu du Foru Aldundiak; izan ere, otso bikote batek euren animalian "kalte ugari" eragin dituela ziurtatu dute. 2019an, 200 animalia baino gehiago hil edo zauritu ziren otso bikote horren ustezko erasoaren ondorioz. Momentu honetan, hainbat iturriren arabera, Araban zeuden bi ale horietako bat baino ez da geratzen.





Ekologistak Martxan mugimenduko kideek salatu dutenez, Na-

turzaintza Aholku Batzordean otsoa Espezie Mehatxatuen Euskarri Katalogoan sartzeko Jaurlaritzak egindako proposamena eztabaidatu eta bost egunera hartu da erabakia. Hori "inkongruentzia" bat dela kritikatu dute.

## Prebentzio-neurriak

Gainera, kaltetutako abeltzainek hartutako prebentzio-neurriak ez direla egiaztatu uste du talde ekologistak, eta hori otsoa hiltzea baimendu aurretik "ezinbestekoa" zela ziurtatu dute.

Horren aurrean, taldeak iragarri du Europako Batzordeari jakinaraziko diola gertatutakoa. Gainera, otsoaren ehiza ahalbidetzeko Europako funtsek finantzaturako LIFE Oreka Mendia proiektua aitzakia gisa jarri duela azpimarratu dute: "Funtsek kentzeko eta AFA proiektu horretatik kanporatzeko eskatuko dugu".

	Euskal Herria	A. Errioxa
<b>Lurralde egitura eta ingurua</b> 		
Biztanleria dentsitatea (bizt./km <sup>2</sup> )	150,6	35,5
Oinarrizko zerbitzu publikoen gertutasuna (km.)	8,1	13,1
Nekazal lurra (%)	37,6	75,1
<b>Ekonomia eta enplegua</b> 		
Jarduera tasa (%)	76,8	72,2
Langabezia tasa (%)	14,5	16,9
Ehun ekonomikoaren dentsitatea	77,3	113,8
<b>Kohesio soziala</b> 		
Gazteen errotze indizea (2008/18)	7,7	3,1
Estatutik kanpo jaiotzako biztanleria (%)	10,2	11,2
Goi-formazioa duen biztanleria (%)	23,3	14,4
<b>Metabolismo demografikoa</b> 		
Biztanleria osoa	3.152.218	11.203
Biztanleriaren bilakaera 2008-2018 (%)	3,1	-0,7
Biztanleriaren feminizazioa (%)	51,3	48,7

ITURRIA: GAINDEGIA

"Pobreziaren zabalpena, hortaz, garrantzitsua da. Ardogintza sektorearen bueltan osaturiko kohe- sio sozialak baditu zenbait arra- kala", nabarmendu du Gaindegiak. Euskal Herriko eskualdeen egoe- ra sozioekonomikoari buruz egin- dako ikerketan gizarte garapene- rako behategiak argitu du, gaine- ra, enplegua egon badagoela mahastien lurraldean, baina prestakuntza gutxiko lan-eskuaren beharrak prekaritatea eta behin- behinekotasuna sorrarazten di- tutela. "Espainiako estatutik kan- po jaiotako biztanleria erakarri du ardogintzak, Marokotik bereziki, egoiliar gutxi baitago prest lan baldintza horietan jarduteko".

### Ardogintzaren menpeko

Ardogintzarekin zuzenean lotuta dago Arabako Errioxaren garapen ekonomikoa, sektore guzti-guz- tietan. Hala, Gaindegiak jaso be- zala, lehen sektoreak eskualdeko ekonomiaren balio erantsiaren %12,5a sortzen du, eta industria da balio erantsiaren beste %53,2aren iturburua. Horrenbes- tez, eskualdeko ehun ekonomi- koaren %38,2k zuzenean lehen sektorean dihardu, eta beste pro- portzio handi bat zeharka sekto- re honi lotuta dago bai industrian zein zerbitzuetan.

Herritarren jarduera-tasa (%72,2), Euskal Herrian baino txikiagoa da (-4,6), eta langabezia- tasak (%16,9) Euskal Herrikoa gainditzen du (+2,4). Hala, 4.300 landun eta 900 langabetu daude Arabako Errioxan. Guztira, 6.200 bat enplegu daude eskualdean; baina, esan bezala, enplegu horrek behin-behinekotasun handia du eta kasu gehienetan prekarioak dira lanpostuak.

# Arrakala, gero eta handiagoa

Ardogintzaren jarduerak arrakala sozial eta desberdintasun ekonomiko handiak eragin ditu Arabako Errioxan; oinarrizko soldata kobratzera iristen ez diren herritarrek eta milioiunen upategiak elkarrekin dira.

### ESTXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoa- ko Barne Produktu Gordin altue- na duen lurraldea da Arabako Errioxa (62.120 euro/urtean), eta gainera azken urteetako krisi eko-

nomikoa saihestea lortu du es- kualdeak. Alta, herritarren arteko errenta desorekak oso handiak dira bertan, eta herritarren %45,6 hilean, gehienez, 930 euroko diru- sarrerekin bizi behar da.

## ESKUALDEKO AZALERAREN HIRU LAURDENAK (%75,1) NEKAZARITZARA BIDERATZEN DIRA

Arrakala sozial eta ekonomikoari aurre egitearekin batera, populazioaren galeraren aurrean neurririk hartzeko erronkari eutsi beharko diote lurraldean. Izan ere, azken hamarkadan Arabako Errioxako udalerrri gehienek biztanleria galdu dute, eta soilik Oioni esker mantendu du eskualdeak hazkunde demografikoa. Gainerako Euskal Herriko eskualdeetan baino zahartze-tasa apalagoa dago bertan, baina hainbat herritan oso agerikoa da: Samaniegon, Mañue-tan eta Lezan, adibidez.



Guardia da Arabako Errioxako burua; 1.505 biztanle ditu. PHOT. OK



### ERAKUSKETA BERRIAK

Inaugurazioa  
2020.02.07 19:30

Praktika artistikoak Euskal  
Herriaren 1977-2002 aldian  
Zeru bat, hamaika bide

Gema Intxausti  
Jendetzaren erdian,  
atxiloketari begira

>2020.09.20

### JARDUERAK

ARTISTAK GUREAN  
Gema Intxausti  
2020.02.12 19:00

GAZTEENTZAKO LANTEGIAK  
Musika Hedatua  
12-18 urte bitarteko  
*Artium soinu paisaiatik bidaiia*  
2020.02.15 17:00>19:00

ERAKUSKETEN BISITA GIDATUAK  
Asteazkenero 18:30 (euskaraz)  
Igandero 12:30 (gaztekeraz)

Argibide gehiago:  
[www.artium.eus](http://www.artium.eus)

## ESANAK



**INES BAIGORRI**  
ABRAKO KUDEATZAILEA  
*Iturria: Radio Vitoria*

**"Arabako Errioxako upategi batzuen negozioarekin ez dator bat 'Rioja' marka"**



**THAYLOR LUBANZADIO**  
FUTBOLARI LAUDIOARRA  
*Iturria: Aiaraldea.eus*

**"Futbol zelaietan diren irain arrazisten kontra ezer esaten ez duen jendea konplizea da"**




**ANDRES BEZARES**  
AKTOREA  
*Iturria: Noticias de Alava*


**"Taula gainean umorea da gauza serioak kontatzeko behar dudana distantzia"**

## ZENBAKITAN

### Langabetuak



**Urtarrilak** datu txarrak utzi ditu enpleguaren alorrean. Espainiako Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak eskaintako datuen arabera, Hego Euskal Herriko lurralde guztietan handitu egin da langabe kopurua: hain zuzen ere, 4.161 langabe gehiago daude gaur egun; horietatik, 724 arabarrak dira. Gizarte Segurantzarako afiliazioaren gaineko datuei dagokionez, 2019ko abendutik, batez beste, 159.713 afiliatu izan dira Araban, 1.780 gutxiago (%1,1eko jaitsiera). 2019ko urtarriko datuak aztertuta, aldiz, gora egin du kopuruak: herrialdean 2.604 afiliatu gehiago daude (% 1,66 gehiago).



### Euroak

**Argantzongo Udalak** ia 600.000 euroko aurrekontua onartu du 2020. urterako, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin udalbatzarrak argi berdea eman ostean. Aurrekontuaren %30 inbertsioetara bideratuko dute; hain justu, 170.000 euro inguru. Horien artean, Las Cercas kalearen urbanizazioa nabarmendu du Udalak; Santa Maria eta Concepcion kaleen arteko zatian garatuko da proiektua.



### Metroak

**URAK** 140 metroko luzera eta lau metroko altuera duen horma bat kendu du Amurrion, Nerbioi ibaiaren eskuinaldean, Refor-aren parean, tarte hori naturalizatzeke. Harresia eraitsi eta kendu ondoren, ibilgura zaharberritu da, eskuinaldean meandro txiki bati forma emanez. Era berean, eskuineko erribera eta ibaiertza landareztatu dira, ibaiertzeko oihanpeko espezie autoktonoekin, eta oinezkoentzako bidea ordezkatu da, ibilgura gehiago hurbilduz.



## AHTaren kontrako elkarretaratzea egin dute Ribabellosan

Ribabellosako Boilurraren azoka aprobeztatuz, AHTrik EZ! Arabako Haranak plataformako kideek elkarretaratzea egin zuten pasa den igandean Gasteiz eta Burgos lotuko dituen abiadura handiko linearen proiektua salatzen. Araba mailan tren sozialaren aldeko sinadura bilketa jarri dute martxan Abiadura Handiko Trenaren aurkako hainbat eragilek.



AHTaren aurkako elkarretaratzea Ribabellosan. HALA BEDI

## Arabako autobusen txartelak internet bidez erosi ahal dira

Autobusen foru lineetako txartelak lineako zentral baten bidez [araba.eus/alavabus/](http://araba.eus/alavabus/) aldez aurretik erosi eta erreserbatu ahal dira dagoeneko; hain zuzen ere, Gasteiz Arabako eskualdeekin eta ondoko probintziekin lotzen duten hiriarteko garraio lineen txartelak. Bidaiariek, horrela, plaza ziurtatu ahal izango dute eta,aldi berean, denbora aurreztu.

## Jai batekin ospatuko dute hegoaldeko tranbiaren inaugurazioa

Gasteizko hegoaldeko tranbia hilaren 15ean inauguratuko dute, Angulema eta Arabako unibertsitate arteko zatian. Tarte berriaren estreinaldia zazpi bagoiko unitate berrietako baten barruan girotuko du Geraldine jazz taldeak, tranbia hiritik zehar mugitzen den bitartean. Unibertsitateko gelotikian, bitartean, Korrontzi eta Itziar Yague izango dira eguerdian.



**ATE IREKIAK**  
UNIBERTSITATE GRADUAK  
2020/2021 ikasturtea

# LEARNING FROM REALITY

**INGENIARITZA**

**GOIERRI OTSAILAK 8**  
LARUNBATA 10:30

**BILBO MARTXOAK 11**  
ASTEAZKENA 18:00

**ARRASATE MARTXOAK 14**  
LARUNBATA 10:30

**ORONA IDEO APIRILAK 2**  
OSTEGUNA 17:30

**EKINTZAILTZA**

**OÑATI OTSAILAK 15**  
LARUNBATA 11:00

**BIDASOA OTSAILAK 29**  
LARUNBATA 11:00

**BILBO MARTXOAK 28**  
LARUNBATA 11:00

**ENPRESA KUDEAKETA**

**BILBO OTSAILAK 8**  
LARUNBATA 11:00

**OÑATI OTSAILAK 15**  
LARUNBATA 11:00

**BIDASOA OTSAILAK 29**  
LARUNBATA 11:00

**HEZKUNTZA**

**ESKORITZA OTSAILAK 8**  
LARUNBATA 11:00

**BILBO OTSAILAK 8**  
LARUNBATA 11:00

**KOMUNIKAZIOA**

**ARETXABAETA OTSAILAK 8**  
LARUNBATA 11:00

**BILBO OTSAILAK 8**  
LARUNBATA 11:00

**HUMANITATEAK**

**BILBO OTSAILAK 8**  
LARUNBATA 11:00

**GASTRONOMIA**  
— Basque Culinary Center

**DONOSTIA OTSAILAK 13**  
OSTEGUNA 18:30

Etorriko zarcia jakinarazi!

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# Lehena eta oraina, mozorroetan

Herrietako larruak eta pertsonaia mitikoak hiriko karroza ikusgarriekin eta soinu tropikalekin nahastuko dira hilabete honetan; Kuartangok piztuko du larunbat honetan ihauterien denboraldia.

## ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Nahasmena dakar ihauteriak: askotariko mozorroak, lehengo eta oraingo tradizioak, landa-ihauteak eta hiriko jaiak, doinu tropikalak eta makilen hotsak, larruzko zein lastozko gizonak eta pertsonaia biralen imitazioak; guztiak nahastuko dira hilabete luzez. Bada, udaberrira sartu aurreko errituak ospakizun bilakatuko dituzte arabarrek larunbat honetatik aurrera.

Hala, Kuartangok piztuko du herri inauterien lehenengo sua, hartzaren ehizarekin, eta Salcedok itzaliko du, hilaren 29an, Porreteroa epaituz. Bitartean, hilaren 15ean, Ilarduia, Egin eta Andoinen etxez etxe dantzaka eta jolasean arituko dira beste behin ere, eta ondoren, Porreroari su emango diote. Zalduondon, berriz, otsailaren 23an, herritik paseatu eta gero, epaitu eta sutan erreko dute Markitos, gaitz guztien erruduna; eta hilaren 25ean, Kanpezun, Toribio izeneko lastozko gizona Ega ibaian itoko dute.

Hala ere, Arabako herri gehienetan eta baita hiriburuan ere, otsailaren 21etik 25era egingo dira inauteriarekin loturiko ekitaldi nagusiak. Herri batzuetako jaiak hiriko inauterietako ezaugarriak hartu dituzte, nahiz eta herriko landa iraganeko tradizioren bat gorde duten. Agurainen, esate



Gasteizko 2020ko ihauterien kartela Ruben Lucas diseinatzaileak egin du. GASTEIZKO UDALA

baterako, Porreroa eta Sorgina jaitsiko dira ostiralean Opakuatik, eta inauteri osoak emango dituzte udaletxeko balkoian. Laudion, berriz, Leziagako leizean bizi zen

emakumearen kondaira gogora ekartzen duen Leziagako sorginaren pertsonaia aterako dute konpartsek. Iragan urtera arte, sorgina erretzen zuten asteartean, baina iaz erabaki

zuten, pertsonaiari omenaldia egitea, sorgin guztiekiko aitortza gisa.

Bide apurtzailea hartu dute ere Urkabustaizen, eta antzinako osagaiak hartuta, herri inauteri "basatiak" sortu dituzte gazteek. Zakuak, animalia-hezurak, larruak eta trapu zaharrak eramaten dituzte, eta inprobisatzen dute.



Ceniceroak eta porreroak, Kuartangon.



Zalduondon Markitos erreko dute.



Katxiak Kanpezuko ihauterietan.



Salcedon Porreroa epaituko dute.



Asparreneko pertsonaiak.

### Gasteizen, margolariak

Gasteizen, azken urteotan, tradizio batzuk berreskuratutuzte, hala nola Ostegun Gizona edo Gasteizko Margolarien etorrera. Hiriburuan, inauterietako egun nagusia larunbata da. Abesti ezagunak kontatzen duen moduan, egun horretan iristen baitira margolariak "Atxuriko eta Amarako geltokiak margotzen amaitu eta gero". Hortaz, eguerdian, tren geltokian ongiatorria egingo zaie margolariei, eta ondoren, Arka plazara abiatuko dira, jai giroan, bertan dagoen Ibiltaria estatuari moztorra janztera. Arratsaldean, konpartsen eta karrozen desfilea hiriko kale nagusietan barrena joango da Iparralde gizarte etxetik Florida parkeraino. Aurten, 26 konpartsa eta 7.162 lagunek parte hartuko dute otsailaren 22an eta 23an egingo den desfilean.

Ostegun Gizona ere ospatuko dute, otsailaren 20an, arratsaldean. Egun horretan, Gasteizko erdialdeko kaleetatik kalejira bat egingo dute Musiketxeak antolatuta; eta, Goian elkartearen eskutik, iaz egin zuten bezala, berriki euskaratu duten *Gasteizko margolariak* kanta abestuko dute umeez hiriko Alde Zaharrean. ■■■



# A2

**Antxeta  
Irratia,  
hegoak zabalik  
Euskal Herri  
osora**

**Donostia 105.8 Mhz | Bilbo 91.4 Mhz**  
**Gasteiz 90.4 Mhz | Iruña 106.70 Mhz**



# Eszena, baratzatik zuzenean

Otsailaren 14tik 16ra bitartean Baratza aretoarekin harremana duten artisten obrak ikusi ahal izango dira; azkeneko Bertako Jaialdia izango da, etorkizunera egokitutako formatu berri bat helburu.

## ERREDAKZIOA

Baratza aretoan sortzen diren edo aretoari lotuta dauden sorkuntza eszenikoak publikoari hurbiltzeko asmoz, Bertako Jaialdia izeneko zikloa ospatuko dute hilaren 14tik 16ra bitartean. Gasteizko espazioak urtean zehar hartzen dituen erresidentzia artistikoetan sortutakoak edo aretoaren sare profesionalekin harremana daukaten artisten lanaren emaitza dira ikuskizun horiek. Laugarren jaialdi honekin amaiera emango diote etapa bati.

Aurtengo edizioan bertako zein nazioarteko artistek aurkeztuko dituzte euren proposamenak. Hala, otsailaren 14ean (ostirala), 20:00etan, Fanny Giraudek irekiko du jaialdia *Juntos. Diálogo de una soledad acompañada* ikuskizunarekin. Clown jokoan aditua den pailazoa da Giraud, eta 2014ko Feten azokan emakumezko aktore onenaren saria jaso zuen, besteak beste.

Larunbatean, hilaren 15ean, 20:00etan, ikusleek Gasteizko eszenako klasiko batekin topo egiteko aukera izango dute: Detritus Teatrus konpainia arabarrak sortutako *Ovarios Verdes Fritos* antzezlan. Obra honen protagonista Mastur Batetu Catalina doktorea da, oroimena eta pixa galtzen aditua, eta ikusleak kontakizun probokatzaile, hausgarri eta



'Gesto' lana igandean aurkeztuko du Inextremis taldeak. INEXTREMIS

dibertigarri batean murgiltzera gonbidatuko ditu.

Bukatzeko, otsailaren 16an, 19:00etatik aurrera, bi proposamen izango dira Bertako Jaialdian: batetik, Grupo Inextremis taldearen *Gesto* lana. Konpainia hau 2016an sortu zen Oliteko Antzerki Klasikoko Jaialdian proiektu bat garatzeko helburuarekin, baina bere ibilbidea luzatu du gaur arte, sari ezberdinak jasoz, 2017ko proiektu eszeniko onenari Gayarre saria, besteak beste; eta, bestetik, *Latencia* obra, sormen prozesu gisa aurkeztuko dena, Susanne Grau alemaniarrak sortuta. Dantzariak xehetasunekin maitemintzera gonbidatuko du publikoa. Baratzak *Latencia* proiektua bere erresidentzia

artistikoen programaren bitartez laguntzen du; honi esker aretoan egongo da lanean Grau otsailaren 4tik 16ra.

Aldez aurreko sarrera salmenta jarri dute Baratzaren [salabartza.com](http://salabartza.com) webgunean.

## Etorkizunera egokitu

Laugarren edizio honekin, Bertako Jaialdiak amaiera emango dio ibilbideari. "2020ko lanak gehituta, hoguei inguru dira publikoari eskaini dizkiogun proposamen eszeniko garaikideak, hala, Baratzatik gertu jaiotzen denari ahotsa eta espazioa emanaz", azaldu dute aretotik. "Aurtengo edizioa eta gero, etorkizunera egokituago dagoen beste formatu bat izango da jaialdia; horren inguruan hausnartzen ari gara gaur egun". ■

# Egun on, alu!

SEXUALITATEA



EMAIZE

Zenbait ikerketek diotenez, gorputz atal guztiek haien isla dute gure garunean eta gorputz errepresentazio horrek atal bakoitzaren aktibitate maila eta berataz dugun kontzientzia maila adierazten du. Hau dela eta, gehien kasuan eskuak modu biziagoan islatuak daude, baina piano-jole baten kasuan oraindik gehiago, adibidez.

Kuriosoa da, edo agian ez hainbeste, genitalak duten errepresentazio maila txikia. Konexio hau ez da sortzen gorputz atal horien erabileragatik bakarrik; beraz, nahiz eta egunero txiza egiteko zein joko erotikoren baterako erabil ditzakegun, errepresentazioa txikia izan daiteke. Zergatik? Errepresentazio hori gorputz atal horrekin dugun harremanaren arabera moldatuz doalako; beraz, zakila duten pertsonak bere genitalen marrazkia handiago dute garunean islaturik txikitandik, egunero naturaltasunez zakila ikusi, ukitu eta aipatu egiten dutelako txiza egiterakoan, biluztean zein dutzatzean. Horrek neuronen konexio gehiago sortuko ditu eta ondorioz, gorputz atal kontzienteago bat bezala hautemango du.

Aluaren kasuan, aldiz, txikitandik izengabeko atala izan da gehienontzat, eta... izenik ez duenak, ba al du izanik? Izana badu, baina izendatu ez, ikusteko zaila eta ukitu edota begiratzea ausardia eta zakartzat hartua



PIXABAY

denean, neurona konexio horiek sortzea ia ezinezkoa izango da eta gure alua ez dugu beste atalak bezain aintzat hartuko. Zakilak, gehienetan, alua baino errepresentazio handiagoa badu ere, mugak ditu, zenbait ekintza egiteko tresna gisa hautematen dugulako, bere funtzionamendu eta egoeran erreparatu gabe, nahi dugun tentetza lortzen ez dugunean salbu.

Gure genitalak aintzat ez hartzeak gure bizitzako eremu askotan izango du eragina. Ikastetxean ikasi beharreko zenbait ikasgai eta azalpenen aurrean nazka, gorputz

## GURE GENITALAK AINTZAT EZ HARTZEAK GURE BIZITZAKO EREMU ASKOTAN IZANGO DU ERAGINA

funtzionamenduaren ezjakintasuna, gure prozesu ziklikoen baztertzea, hilekoaren odola, tanpoi, kopa... erabiltzeko orduan beldurra; zakilak behar duen higiene egokia ematea, gozatzeko orduan kanpotik datorkigun eskema eta gureak ez diren beharretara egokitze joera,... finean, gorputza bere osotasunean ez onartzeak dakarren guztian.

Genitalak ezagutu, ukitu eta bere beharrez ohartzean, gure kontzientzia handitu eta gure neuronen arteko konexio berriak sortaraziko ditugu, gorputz atal hauetan arreta handiagoa jartzen lagunduko digu eta bere osasuna zainduko dugu, bestelako ataletakoa zaintzen dugun moduan. Komunikatu zuen genitalekin eta galde iezaiezue zer behar duten!! ■■■

emaize

SEXOLOGIA ZENTROA  
CENTRO SEXOLÓGICO

Bueno Monreal 1. behea · 01001 Vitoria-Gasteiz  
945 265 896 · emaize@emaize.com · www.emaize.com

# Pizza di patate

**ENEKO RODRIGUEZ**  
MUSEO DEL ORGANNO

**M**useo del Órgano jatetxe begetarianoan hilero Arabako produktu bat ikusarazteko saiakera egiten dugu. Hilabete osoan zehar, aukeraturako produktua egunero aurkitu daiteke gure menuetan, era desberdinetan prestatuta.

Baina produktuez gain, ekoizleek egiten duten lana ere eman nahi dugu ezagutzera. Gure kolaboratzaileak Arabako Bionekazaritzako sareko kideak dira, eta nekazaritza ekologikoaren alde egiten dute apostu.

Urtarrilean zehar, patata izan dugu protagonista; eta kasu honetan, Imanolek, Adanatik, ekartzen dizkigu patatak.

Ohitura hartuta, larunbatetan pizza eta pasta begetarianoa eskaini ohi ditugu gure jatetxean; eta honezkero *pizza di patate* klasiko bat bihurtu da gure sukaldean.

Izandako arrakasta ikusirik, zuek ere etxean egin ahal izan dezazuen, hona hemen gure errezeta. Gustuko izan dezazuen espero dugu. On egin! ■■■



## Osagaiak (4 lagunentzat)

- Irina, 200 g.
- Olioa, 20 ml.
- Gatza, 8 g.
- Ama orea, 80 g.
- Mozzarella, 100 g.
- 2 patata.
- Tipula bat.
- Erromeroa, koilarakada erdi.

## Prestaketa

1. Katilu batean irina, ama orea, olioa, ura eta gatza eskuekin oratu, orea osatu arte.
2. Mahai batean irin apur bat bota eta orea gainean jarri. Orea luzatu eta tolestu hainbat aldiz, ore malgu bat lortu arte.
3. Leku epel bat bilatu eta bertan orea hartidura egiten utzi (bi ordu).
4. Orea prest dugula, patatak lasto erara moztu eta erromero oliarekin ondu (ordubete).
5. Tipula juliana erara moztu eta mozzarella dadoetan prestatu.
6. Orea luzatu eta patatak, tipula eta mozzarella gainean jarri. Erromero olioarekin azken ukitua eman.
7. Labea 250 gradutan berotu eta pizza bost minutuz laberatu. Temperatura 200 gradutara jaitsi eta hamar minutu gehiago laberatu.

Oharra: Orea sobera geratzen bazaigu, izoztu eta nahi dugunean erabili dezakegu pizza egiteko.

**MUSEO**  
**del ÓRGANO**

**RESTAURANTE VEGETARIANO**  
**JATETXE BEGETARIANO**

Manuel Iradier 80, 01005, Vitoria-Gasteiz (Araba) - 945264048 - museodelorgano.com - @museodelorgano

## Sinonimoak

**DULANTZI ESKOLA - LH 5**

Hemen dituzue hamar goxoki eta bakoitzaren barruan hitz bat. Esanahi berdina duten hitzak elkartu behar dituzue. Arazoak baldin badituzue hiztegia erabili.



## Simetria jolasa


**DULANTZI ESKOLA - LH 5**

Denbora-pasa polita eta,aldi berean, matematika lantzeko ariketa polita.

Niri hontzak gustatzen zaizkit, zortea ematen dutela esaten dute.

Ea lortzen duzuen marrazkia osatzea eta zuei ere zorte ona ematen dizuen.

Amaitzen duzuenean, margotu!





ZOZKETAK

PARTE HARTU [www.alea.eus/zozketak](http://www.alea.eus/zozketak)

**Irabazleak:**

**Zea Mays ikusteko sarrera soltea:** Jon Otegi Irastorza eta Stéphanie Barrial.  
**GoPro motako kamara:** Ilenia Caicedo Saenz de Kortazar.



## 'Kaskarot' antzezlana

### Sarrera bikoitza

Otsailaren 16an, familiei zuzendutako **'Kaskarot'** antzezlana izango da Gasteizko Principal Antzokian, 18:00etan. ALEAk sarrera bikoitz bat zozkatuko du. Parte hartu otsailaren 11 baino lehen. Zuzenean abisatuko diegu irabazleei telefonoz.



## 'Harri, orri, ar' antzezlana

### Sarrera bikoitza

Otsailaren 19an, **'Harri, orri, ar'** izeneko antzezlana aurkeztuko da Gasteizko Principal Antzokian, 20:30ean. ALEAk sarrera bikoitz bat zozkatuko du. Parte hartu otsailaren 12a baino lehen; hilaren 14ko ALEAn publikatuko dugu irabazleen izena.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

[alea.eus/harpidetzak/](http://alea.eus/harpidetzak/)



# AGENDA

Otsailaren 7tik 13ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

## Euskararen agenda

### MUSIKA

#### AMURRIO Garilak 26

Larunbata 8, 22:00etan, Burubio aretoan.

### DANTZA

#### GASTEIZ Ilunabarrean dantzan

Balfolk eta euskal dantzen plaza. Josu Garateren eskutik.

Igandea 9, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

### BERTSOLARITZA

#### GASTEIZ Bertso Kuadrilla Artekoa

Lautadako Ahuntzak eta Muinoko Katuak Resurrection taldeak. Ostirala 7, 21:00etan, gaztetxean.

#### GASTEIZ Bertso Kuadrilla Artekoa

Bazaar Xanmapelezuin eta Konde Basoko Iluek taldeak. Larunbata 8, 14:00etan, Errekaleorreko gaztetxean.

### ANTZERKIA

#### AMURRIO 'Epa'

Demode Quartet taldearen eskutik. Musika eta antzerkia. Mikel de la Fuente, Joli Pascualena, Iker Huitzi eta David Rosco aktoreekin. Larunbata 8, 20:00etan, Amurrio Antzokian.

#### GASTEIZ 'Konboff'

Dantza eta mikroantzerkia. Tranpola taldearen eskutik. Gontzal Uribe,



'ZIZELKARIAK'

#### GASTEIZ 'Zizelkariak' dokumentala

Euskal Herriko periferia geografikoetako sei gazteri buruzko dokumentala. Asteazkena 12, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

Amaia Garrosa eta Josune Velez de Mendizabal aktoreekin.

Igandea 9, 19:00etan, Arana gizarte etxean.

### IKUS ENTZUN

#### GASTEIZ 'Basque misreadings. Berria-n gaizki irakurriak'

Edu Zelaieta idazleak eta Eneko Ugarte artistak sortutako erakusketa. Berria egunkarian gaizki irakurritako albisteekin osatutako bilduma. Otsailaren 23ra arte, Oihanederren.

### HAURRAK

#### GASTEIZ Hatz txotxongiloak

Txotxongiloak egiteko eskulan saioa. 2-3 urte bitarteko umeentzat; heldu batek lagunduta joan beharko dute. Ostirala 7, 18:30ean, Zabalganeko gizarte etxean.

#### LAUDIO Eskulan saioa

Sorgin Zapatuak egitasmoaren barruan. Eskulan saioa eta askaria. 5 urtetik gorako umeentzat. Larunbata 8, 17:30ean, Lamuza parkeko frontoi etxean.

#### GASTEIZ Sukaldaritza saioa

Frutekin egindako errezeta bat egingo dute. 8 urte bitartean. Asteazkena 12, 18:30ean, Landatxoko ludotekan.

### BESTELAKOAK

#### KUARTANGO Herri inauteriak

Hartza, otsoa eta beste pertsonaien inauteri kalejira. Larunbata 8, 19:00etan.

#### GASTEIZ Txakoli dastaketa

Mintzalaguntzailleentzako saio berezia. Geu elkartearen eskutik. Asteartea 11, 19:00etan, Abastosen.



'BERBERANA'

## LAPUEBLA DE LABARCA Uztaberri Eguna

Upategi irekietan bisitaldiak eta ardo dastatze saioak.  
Larunbata 8, 12:00etatik aurrera.

## Beste batzuk

### MUSIKA

#### GASTEIZ Melophilia

Ostirala 7, 24:00etan, Orain tabernan.

#### GASTEIZ Klarinete entzunaldia

Luis Aranburu musika eskolako ikasleek eskainiko dute saioa.  
Astearte 11, 18:15ean, Luis Aranburu musika eskolan.

### ANTZERKIA

#### ZIGOTIA '¿Cómo hemos llegado a esto?'

Erre taldearen eskutik. Maribel Salas, Gorka Minguez, Gemma Martinez eta Mikel Santamarina aktoreekin.  
Larunbata 8, 19:00etan, Zigoitia aretoan.

### HITZALDIA

#### GASTEIZ Bidaia hitzaldia

Iñaki Diaz de Eturarekin. Continental Divide Trail ibilbideari buruzkoa.  
Igandea 9, 18:00etan, Adurtzako gizarte etxean.

### IKUS ENTZUN

#### ARAMAIO 'La mujer de la montaña' pelikula

Ikusiz Gozatu elkartearen eskutik.  
Larunbata 8, 20:00etan, kultur etxean.

#### GASTEIZ 'Andrés Carrasco. Ciencia disruptiva' dokumentala

Ingurumen zinema jaialdi barruan.  
Astearte 11, 19:30ean, Aldabe gizarte etxean.

### BESTELAKOAK

#### GASTEIZ Jam literarioa

Olerkiak eta ipuin laburrak. Sandra Maturanak gidatutako saioa.  
Igandea 9, 18:30ean, Falerinan.

Euskararen Agendako hitzordu guztiak ikusteko:

[alea.eus/agenda](http://alea.eus/agenda)

Jimmy jazz Gasteiz OTSAILA

Os. 7 NOVEDADES CARMINHA

Lr. 8 K.O. ETILIKO + OBSESIÓN FATAL

Lr. 8 SHO-HAI A LOS CD'S

Os. 14 BAD SOUND + SENYOR OCA

Lr. 15 ZEA MAYS + SEGA SOUND KILLERS

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM





**Bildu zaituz**  
**kanpainara!**  
[www.eskolapublikoa.eus](http://www.eskolapublikoa.eus)